

EGUNON/ARRATSALDE ON Gernikan bildu zareten guztioi!

Ezer baino lehen nere eskerrik beroena eman nahi dizuet emaniko sari honengatik. Ohorea da bai niretzat eta baita neure sendiarentzat Gernika izena daraman saria jasotzea. Ohore eta arduraz beteriko eginkizuna etorkizunerako. Ez dizuet horretan kale egingo... mila esker berriro ere.

Orain dela urte dexente, Elgoibarko Sallobente bailaran , Txillarre baserrian , Pellok ongi hornitzen zuen mahai batean hasitako historia da ein batean egungo egoerara ekarri gaituena. Denbora pasa ahala gero eta inpresio handiagoa daukat mahai horretan exertzen ginenok orain hain desprestijiatua den POLITIKA hizki handiz egiten hasi ginela. Mahai horretan pixkanaka –pixkanaka hauteskundeak, boto lehia, “kalkulu politikoak”, jokatzeko miseriak eta txikira dugun ohitura alboratu eta handira jokatzera erabaki genuen. Mahai hortatik esan genuen Euskal Herriak merezi zuen justician eta bakean oinarritutako akordioa ateratu behar zen. Hasitako bide horrek gaurko egoerara ekarri gaitu, bideak fruituak eman ditu... bainan ez denak, oraino bidea dago egiteko oraino fruituak ba dira hartzeke. Halere neuretzat daukat eginiko bideak irakaspen ugariak utzi dizkigula aurrera egiteko: besteak beste Politika herri zerbitzuan egiteko handira jokatu eta HIZKI HANDIZ egin behar del aeta beraz alderdikeriak , sektarismoak, boto lehiak... albo batean utzi eta HERRI BORONDATEARI eman behar zaiola bide... ez dagolako inor eta ezer HERRIA baino garrantzitsuagorik... eta herria lagunok ez dute osatzen gu bezala pentsatzen dutenek, gu bezala pentsatzen ez dutenak ere dira herria, dira Euskal Herria. Euskal Herria edonon jaiota eta edonola pentsatzen duen herritarrez osaturiko giza Eskubide guztien Aberri bezala eraiki behar dugulako, sozialki eta nazionalki aske eta justua. Bukatzeko, gauza justuez hitz egin behar badugu, justiziazko bi apunterekin bukatu nahi dut:

1)Lehena nere familiari, Emazteari, Seme-Alabei, Gurasoei... berain laguntza, babesa eta konplizidaderik gabe ezinezkoa izando zelako neure lana.

2)Bigarrenik, neure lagun eta aberrikide den Jesus Egigureni... asko zor dio Euskal Herriak berari, bere konprometua, leialtasuna eta zintzotasunak ekarri du Euskal Herria gaurko egoerara. Merezitako saria da eman diozutenak. Berari, bere emazteari, seme-alabei ere besarkada handi bat.

Eta azkenik , aipatu nahiko nituzke ere neurekin batera lan erraldoi honetan neurekin aritu diren Ezker Abertzaleko hainbat kide... baina batip bat etaoso era Berezina, bere lanarekin egoera honetara ekarri gaituzten eta orain nirekin gartzelan dauden Sonia Jacinto, Miren Zabaleta, Rafa Diez eta Arkaitz Rodriguez burkideak... sari hau beraiena eta beraien sendiena ere bada!

Mila esker guztioi Logroñoko Kartzelatik!! 2013/03/13